



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, [REDACTED]  
[REDACTED] JAUNAK [REDACTED]  
JAUNAREN IZENEAN BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ESKOLA  
FUTBOLEKO LEHIAKETA ETA KIROL DIZIPLINAKO LURRALDE  
BATZORDEAREN 2014KO AZAROAREN 11KO EBAZPENAREN AURKA  
JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA.**

---

40/2014 espedientea

**AURREKARIAK**

**Lehenengoa**.- 2014ko azaroaren 19an iritsi zen Munabe Ikastetxeko [REDACTED] jaunak, [REDACTED] jaunaren izenean, Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordeak 2014ko azaroaren 11n emandako Ebazpenaren aurka jarritako errekurtsoa. Ebazpen haren bidez hilabete bat eta egun bateko zigorra ezarri zitzaion Munabeko [REDACTED] jokalaria, epailearekiko begirunerik eza erakusten zuten ekintzengatik (uztailaren 23ko 391/2013 Dekretua, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa, 9.b) artikuluan, 17.2.a) artikularekin lotuta).

**Bigarrena**.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtso hori izapidetzea onartu zuen eta Bizkaiko Futbol Federakundeari espedientea eskatu zion; era berean, alegazio-izapidea gauzatzeko eta, hala nahi izanez gero, egokitzat jotako frogak aurkezteko aukera eman zion.

**Hirugarrena**.- 2014ko abenduaren 16an Bizkaiko Futbol Federakundeak eskatutakoari men egin zion eta Federakunde horretako Eskola Futboleko



Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Batzordeak gertakariari buruz emandako txostena igorri zuen.

**Laugarrena.**- Azkenik, KJEB honek 2014ko azaroaren 27an hartutako Erabakiaren bidez, eta orain errekurtsogilea denaren eskaerari erantzunez, eten egin zen Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Batzordearen 2014ko azaroaren 11ko Ebazpenaren egikaritzea, Munabe taldeko [REDACTED] jokalaria hilabete bat eta egun batez zigortzen zuena.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa.**- KJEBk du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

Era berean, aipatzekoa da uztailaren 22ko 125/2008 Dekretuak, Eskolako Kirolari buruzkoak, 22. artikuluan xedatzen duena, izan ere, artikulua horren arabera, honako hauei dagokie kirol arloko diziplina-ahalmena erabiltzea, zeinek bere eskumen-esparruan: lehen instantzian, parte-hartzaileen gaineko eskolako kirolaren organo eskudunei; eta bigarren instantzian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari.

**Bigarrena.**- Errekurtsioa eragin zuten gertakariak 2014ko azaroaren 8an gertatu ziren, Munabe 01/02 eta Artega taldeen artean jokaturako norgehiagokan, 11ko futboleko gaztetxoek B ligan.



Norgehiagokaren aktan, epaileak honako gertakari hau jasotzen du:  
*"Munabe taldeko 12. zenbakidun jokalaria, [REDACTED], 70. minutuan zelaitik kanporatu dut, "gilipollas" hitzarekin ni iraintzeagatik".*

Gertakari horiek zirela medio, Bizkaiko Futbol Federakundeko Eskola Futboleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Batzordeak 2014ko azaroaren 11ko Ebazpenean adostu zuen jokalaria hura hilabete bat eta egun batez zigortzea, epailearekiko begirunerik ezaz jokatzeagatik (uztailaren 23ko 391/2013 Dekretua, eskola kiroleko lehiaketetako diziplina-araubideari buruzkoa, 9.b) artikuluan, 17.2.a) artikularekin lotuta).

**Hirugarrena.**- Batzorde honen aurrean aurkeztutako errekurtsioan, frogazipide jakin batzuk gauzatzea (Munabe 01/02 taldeko entrenatzaileak eta zigortutako jokalaria KJEBaren aurrean deklaratzeko, dagozkien azalpenak emateko) eta aplikatutako zigorra murriztea eskatzen da, hemen laburtuta adierazten diren gertakari eta alegazio hauetan oinarrituta:

- Jokalaria zelaitik kanporatzea eta geroago hura zigortzea eragin zuten gertakariak aulkitik 15 metro ingurura gertatu ziren, eta zelaiko jokalarietatik zein ordezkioetatik batek ere ez zuen gertatutakoa ikusi ez iraina entzun, ezta bi taldeetako entrenatzaileek ez ikusleek ere, *"arbitroak soilik entzuteko moduko tonuan esan baitzuen"*.
- Partida bukatu bezain laster, kanporatutako jokalaria (gertakari horiengatik klubak berak zigortu duena, 15 egunez entrenamenduetara joan gabe) bere ekimenez joan zen epailearengana barkamena eskatzeko, eta hori aintzat hartu behar da erantzukizunaren zirkunstantzia aringarri gisara.



Alde errekurtsogileak uste du jarritako zigorra larriegia eta neurritz kanpoko delata, izan ere, errekurtsogilearen hitzetan, *“jokalariaren ekintza ia delituzkoa dela ematen du aditzera”*, are gehiago norgehiagokan zehar ez zenean giro txarrik egon ez ikusleen ez eta jokalarien artean ere; gainera, Klubak berak zigor eredu-emailea jarri dio jokalariai, eta taldeko entrenatzaileak jokalariekin hitz egin zuen errieta egiteko, auzitan den jokalaria bere taldekideei barkamena eskatu eta damu zela esan ziezaien.

**Laugarrena.**- Errekurritutako ebazpena zuzenbideari doitzen zaion erabakitze gertakarien frogari buruzko gaia aztertu behar da.

Kasu honetan, federazioaren zigorra eragin duten egitateak epailearen aktaren bidez egiaztatuta daude, agiri hartan jasota baitaude eskumeneko federazioaren gaitzespena eta zigorra eragin duten ekintzak.

Ezagun denez, epailearen aktak egiazkotasun-presuntzioa du eta horrek esan nahi du egiazkotasun-uste hori zalantzan jarri nahi duen aldeak aurkako froga zehatz, eraginkor eta guztiz sinesgarria aurkeztu behar duela. Hain zuzen ere, doktrina baketsua da epaileak egiazkotasun-presuntzioa duela, hala adierazten baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak: *“izendatutako epailearen aktan jasotako gertakarien kontakizunen inpartzialtasuna eta objektibotasuna epaileak bi taldeekin zerikusirik ez izatetik eratorzen da”* (2003ko urriaren 7ko Epaia, 2003\104967 JUR).

Ildo berean, ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, dagozkien epaile-kategoriei esleitzen die kirol-lehiaketak zuzentzeko ahalmena 50. artikuluan; artikulua berean adierazten du ahalmen hori erabiliz epaile horiek hartutako erabakiak zuzentzat joko direla, eta epaileen aktak lehiaketak behar bezala garatzeko beharrezko dokumentuak izango direla. Antzekoa xedatzen du, eskola-kirolaren esparruan, uztailaren



23ko 391/2013 Dekretuak, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoak, 30. artikuluan.

Kasu honetan, nahiz eta alde errekurtsogileak adierazten duen jokalaria irain ez zutela ez zelaiko jokariak ez ordezkoez entzun, ez eta entrenatzaile-taldeetako ez ikusleetako inork ere, errekurtsioak ez du irain hori gertatu zenik ukatzen; aitzitik, aitortzen du iraina *“epaileak bakarrik entzuteko moduko tonuan esan zuela”*.

Epailearen aktan jasotako egitateen egiazkotasunari buruz, argigarria da orobat jokalaria, errekurtsioan adierazitakoaren arabera, egindakoaz damu zela eta epaileari barkamena eskatzera joan zela partida bukatzean eta, horrez gainera, klubak berak, gertakarien larritasunaren jakitun, gainerako jokariaren aurrean damu zela adierazteko eta horiei barkamena eskatzeko agindu ez ezik, 15 egunez entrenamenduetara joan gabe zigortu zuela jokalaria.

Horren guztiaren ondorioz, frogatutzat eman behar dira errekurritutako diziplina-zigorra justifikatzen duten gertakariak, eta ezin dira onartu, alferrekoak izateagatik, errekurtsioan proposatutako froga-izapideak (zigortutako jokariaren eta taldeko entrenatzailearen deklarazioak), aintzat hartuta, halaber, gertakariari zein horien ondorio juridikoei buruz eta erantzukizuna alda edo arin dezaketen zirkunstantziak egoteari buruz jarraian adieraziko diren gogoetak.

Jokariaren jokabide arau-hauslea 9.b) artikuluan sailkatzen du uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuak, eskola kiroleko lehiaketetako diziplina-araubideari buruzkoak, arau-hauste larritzat jotzen baitu, kirolarien aldetik: *“b) Epaileak, teknikariak, kirolariak, kirol-agintariak, ikusleak edo kirol-lehiaketan esku hartzen duten gainerako pertsonak laidotzea eta iraintzea”*.



Arau horren beraren 17.2.a) artikulua araberaren arabera, honako zigorrak jarri ahalko dira, besteak beste, arau-hauste larriengatik: "a) *Lizentzia baliogabetzea, hilabeterako gutxienez, eta urtebeterako gehienez*".

Hala, bada, Bizkaiko Federakundeko diziplina-organoak arau-haustea sailkatu eta arauz aurre-ezarritako zigorra jartzea baino ez du egin, eta ezin da jokabide hori gehiegizkotzat, neurritz kanpokatat edo zuzenbidearekiko aurkakotzat jo, eskola-kirolaren arloan larritzat jotako jokaera bati dagokion erantzuna baita.

Noski, jokariaren damua, benetan halakorik gertatu bazen, eta klubak jokaera horiekin bukatzeko hartutako jarrera eredu-emailea garrantzitsuak dira eskola-kirolean, esparru horretan zenbait balio, hala nola, begirunea, tolerantzia eta kiroltasuna, nagusitu eta modu positiboan azpimarratu beharrekoak baitira; nolana ere, Eskola Kiroleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordeak ez ditu jokabide horiek erantzukizunaren zirkunstantzia aringarritzat jo kasu honetan, KJEBra bidalitako txostenean adierazi duen bezala, izan ere, zigorra diziplina-araubidean aurreikusitako mailarik baxuenean jarri da dagoeneko, eta jokariaren ustezko damua ez da epailearen aktan jaso; gainera, kirol-taldeak ez zuen gai horri buruzko alegaziorik egin prozedura federazioaren egoitzan izapidetzen ari zenean.

Hori dela eta, KJEBk baieztatzen du Bizkaiko Federakundeko Eskola Kiroleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordearen 2014ko azaroaren 11ko ebazpena zuzenbidearekin bat datorrela.

**Bosgarrena**.- Aurrekarietan adierazi den bezala, KJEB honek 2014ko azaroaren 27an hartutako Erabakian onartu zuen Bizkaiko Federakundearen Eskola Kiroleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordeak 2014ko



azaroaren 11ko Ebazpenaren bidez [REDACTED] jokalariai jarritako zigorra kautelaz eteteko eskaria.

Urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzen duenak, hau ezartzen du 17.4 artikuluan: *“Erabakitako kautela-neurriak indarrean egongo dira espedientea izapidetzen den bitartean, harik eta behin betiko ebazpenaren bidez berretsi edo bertan behera uzten diren arte (...)”*.

Horrenbestez, errekurtsua ebatzi eta eskatutako kautelazko neurria onartzera eraman zuten arrazoiak desagertu direnez gero, hartutako kautelazko etetearen neurria bertan behera uztea dagokio.

Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek

#### ERABAKI DU:

1.- Ez onartzea Munabe Ikastetxeko [REDACTED] jaunak [REDACTED] jaunaren izenean Bizkaiko Federakundearen Eskola Futboleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordearen 2014ko azaroaren 11ko ebazpenaren aurka jarritako errekurtsua; ebazpen hartan, Munabe Ikastetxeko [REDACTED] jokalariai hilabete bat eta egun bateko zigorra jartzea xedatzen zen.

2.- KJEB honek 2014ko azaroaren 24ko Ebazpenaren bidez zigorra kautelaz eteteko neurria altxatu eta bertan behera uztea.

3.- Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta



hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dute Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurtso-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 16a.

Agurtzane Zangitu Osa

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN LEHENDAKARIA